

TXOSTEN PROGRESIBOA

PROZESUA: Elgeta: Danon artian danon herrixa parte hartzeko prozesua

DATA: 2015eko azaroaren 18a

EGILEAK: Olatz Estensoro eta Agurtzane Loidi



PROZESUAREN HELBURUAK:

- Elgetako herritarren eta eragileen parte-hartzea aktibatzea, parte hartzeko kultura sustatzea.
- Herritarrek euren herriaren eta guneen inguruko iritziak, kezak, nahiak eta proposamenak plazaratzea.
- Udalak horiek jasotzea, bere plangintza eta aurrekontuetan kontuan hartzea eta herritarrei gauzatuko direnen eta ez direnen arrazoiak jakinaraztea.
- Aurrerantzean Elgetan parte hartzeko prozesuak arrakastaz garatzeko ordenantzaren oinarriak jartzea.

PROZESUAREN NONDIK NORAKOAK:

- **Inkesta:** Herriko etxe guztietara. Horietatik 102 inkesta jaso dira.
 - 47 paperean(%46) eta 55 (%53) internetez.
 - Datu orokorrak bete dutenen artean:
 - %47 emakumeak eta %56 gizonak izan dira.
 - % 12a, 25 urtetik beherakoak
 - % 40, 26-40 urte artekoak
 - % 38, 41-65 urte artekoak
 - % 10, 66 urtetik gorakoak
 - %93a euskaraz daki
- **Elkarrizketak:** Guztira perfil desberdineko 7 elkarrizketa egin dira: jubilatuen ordezkaria, gazteak, Goibeko elkarte, Guraso elkarte, udaletxeko langilea, baserritarra, kanpotik etorritakoa eta aurreko agintaldietan lan egindako ordezkari politikoa.
- **1. Herri batzarra:** inkesten eta elkarrizketen emaitzak aurkeztu eta herriko diagnostikoa landu ziren.
 - Guztira 20 herritar egon ziren. 12 emakume eta 8 gizon.
 - Horien artean, alkatea, bost zinegotzi eta 14 herritar.
 - Bileraren balorazioa: 0tik 10era puntuazioa. Puntuaziorik altuena 9 izan zen eta baxuena 7, baina gehienek 8 eman zioten.


ARLO BAKOITZAREN EMAITZA

Arlo bakoitzaren emaitza kuantitatiboki eta kualitatiboki jaso dugu.

- Kuantitatiboan, grafika bidez adierazi dugu 1etik 5era bakoitzak nola baloratzen duen arloa eta arlo horren batezbesteko emaitza.
- Kualitatiboan, berriz, arlo bakoitzeko inkestetan eta elkarrizketetan esandakoa taula baten jaso dugu (arloaren egoera eta proposamenak bereiztuta) eta ondoren, beste taula baten, bileran arlo bakoitzari buruz esandakoa(egoera eta proposamenak bereizturik, hau ere).


7. ZE IRITZI DUZU ELGETAZ?

PARTE HARTZEA/AUZOLANA




BATEZBESTEKO EMAITZA: 3,04

INGURUMENA




BATEZBESTEKO EMAITZA: **3,57**

HIRIGINTZA




BATEZBESTEKO EMAITZA: **3,10**

ETXEBIZITZAK




BATEZBESTEKO EMAITZA: **3,24**

HEZKUNTZA




BATEZBESTEKO EMAITZA: **3,57**

KIROLA




BATEZBESTEKO EMAITZA: **3,57**

KULTURA




BATEZBESTEKO EMAITZA: **3,46**

OSASUN ZERBITZUA




BATEZBESTEKO EMAITZA: **2,93**

EUSKARA




BATEZBESTEKO EMAITZA: **3,52**

TURISMOA




BATEZBESTEKO EMAITZA: **2,83**

ONGIZATEA




BATEZBESTEKO EMAITZA: **3,71**

BASERRI MUNDUA



BATEZBESTEKO EMAITZA: **3,26**

JAIAK




BATEZBESTEKO EMAITZA: **3,60**

EGOERA	PROPOSAMENAK
<p>Antzeko tamainako herriekin alderatuta Elgetak maila ona duela uste dute batzuek, baina beste zenbaiten ustez herri txikia delako gauza asko falta dira eta horrek erakargarria ez izatea dakarrela. Hori ulergarria dela ere esaten da, daukan aurrekontua kontuan izanda.</p> <p>Jendearen parte hartzea baxua da askoren ustez.</p> <p>Bestalde, gauza zehatzen inguruko iritzia ere eman da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntzari dagokionez, eta zehazki eskolari buruz, irakasleen oso inplikazio txikia dagoela uste dute. • Ingurumenari dagokionean herritik gertu pinu asko daudela aipatu dute. • Jaiei buruz, urtetik urtera egitaraua ez dela aldatzen. • Jaiak luzeegiak direla. • Jendearen inplikazioa lortzeko eragileak sormena erabili beharko luketela. 	<p>Jaien inguruan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jaietako antolaketan herritarrak inplikatzeari - Jaietako komisia sortzea herriko eragile eta koadrila desberdinekin - Jaietan zezenik ez jartzea - Egun gutxiago eta kalitate gehiago izatea <p>Ingurumenean:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Karabixeta bideko eskonbrera kentzea <p>Hezkuntza:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Eskola txikia izanik, hezkuntza komunitateko eragile guztien parte hartzea bultzatuz proiektu desberdinak martxan jartzea.

HERRITARREN SAIOAN ESANDAKOAK:

EGOERA	PROPOSAMENAK
<ul style="list-style-type: none">• Jai batzordea badago eta irekia da. Nahi duena joaten da.• Askok uste dute jaiak ez direla luzeegiak. Zalantza “kalitatea jaietan” zer den ulertzerakoan.• Karabixetan egotekotan inausitako zuhaitzak daude eta hondakin organikoa da.• Hezkuntza komunitate osoa inplikatu beharrezkin ados baina gehiago zehaztu beharko litzateke.• Azken urteetan soilik hiru pertsonak (horietatik bi zinegotziak) parte hartu dute jai batzordean.• Orokorrean eskaera asko daude baina herritarren aldetik inplikazio gutxi.	<ul style="list-style-type: none">- Jaiak egun aldetik bere horretan uztea.- Jai batzordea indartzea

10. BADA DENBORA BAT HONDAKINEN BILKETA SISTEMA BERRIA DUGULA ELGETAN, ZER IRITZI DUZU SISTEMARI BURUZ?



BATEZBESTEKO EMAITZA: **3,96**

EGOERA

Hainbatek sistema ona, adostutakoa, eraginkorra, praktikoa... dela diote. Hondakinen bereiztearekin gero eta gehiago arduratzen garela esaten da eta denbora gutxian asko lortu dela. Elgetan lortzen ari diren berziklatze tasak onak direla eta denbora gutxian asko lortu dela. Batzuk ondoko herrientzat eredu dela Elgeta aipatzen dute.

Beste batzuk aldiz atez ateko sistema egokiagoa dela diote.

Dena den, gaur egun Elgetan dagoen sistemaren inguruan gehienek hobetzekoak aipatu dituzte:

- Txartelaren sistema askotan apurtuta dagoela edo ez dabilela.
- Ontziak ez direla erosoak hondakinak botatzeko, bi eskuekin ezin direla bota, euria egiten duenean ere zaila dela.
- Txartela auzo bateko ontzietara mugatuta egotea arazoa dela, hondatuta dagoenean ezin delako beste auzotakoetan bota.
- Edukiontzia gainezka egoten direla eta hondakinak edozein modutan.
- Bilketa lekuetan inoiz baino zabor gehiago dagoela lurrean.
- Kartoiak lurrean uzten direla ez apurtzearren.
- Poltsak ez direla egoki erabiltzen.
- Edukiontzietan denetik egoten dela.
- Organikoaren tapa zikina egoten dela eta udan euli asko irteten direla tapa irekitzerakoan.
- Jende askok plastikozko poltsetan botatzen duela.
- Auto-konpostaiaren inguruan ere batzuetan hezeegi dagoela eta gune batzuetan ez dagoela ondo, usai txarra...


PROPOSAMENAK

- Kanpainak egitea hondakinen sailkapena gogoratzeko, kontzientziatzeko
- Emaizak etxez etxe banatzea edo ohar tauletan jartzea
- Paper ontzi gehiago jartzea
- Organikoaren txartel txikiagoak egitea
- Olio berziklatzeko ontziak ipintzea
- Auzo-konpostguneetan eltxo eta usainak ekiditeko neurriak hartzea

HERRITARREN SAIOAN ESANDAKOAK:

EGOERA	PROPOSAMENAK
<ul style="list-style-type: none">• Tokiaren arabera (gunearen, auzoaren... arabera) aldatzen da egoera.• Edukiontzia ez dira egokiak, batez ere altua ez den jendearentzat.• Txartel txikiagoak jarritz gero giltzekin agian gehiago izorratuko lirateke?• Olioarentzat edukiontzia badago.• Hondakinak ondo sailkatzeko borondatea badago baina informazio falta dago oraindik.• Sentsazioa da gaizki egiten dutenak beti berdinak direla.	<ul style="list-style-type: none">- Bestelako edukiontzia jartzea: guztiontzat egokiak alturan, hondakinak erosoago botatzeko moduan... batez ere organikoaren kasuan.- Edukiontzia estalpean jartzea- Hondakinen banaketa eta auzokonposta egoki egiteko informazioa edo ikastaroak berriz ematea, zenbait puntu argitzea (kartoia kanpoan utzi daiteke?, zer da lehorra eta zer hezea konpostan?)

11. NOLA USTE DUZU DAUDELA ELGETAKO KALEAK, ERAIKINAK ETA BIDEAK MANTENIMENDU ALDETIK?




BATEZBESTEKO EMAITZA: 3,29

EGOERA	PROPOSAMENAK
<p>Hainbatek aipatzen du eraikin asko zaharrak eta jausteko arriskuarekin daudela eta egin izan diren erakinak kalitate gutxikoak direla, banaka batzuk izan ezik.</p> <p>Kaleetan adokin asko dagoela eta irisgarritasun aldetik ez dela eroso, batez ere San Roke kalekoa, Salvador osteko oinezko bidean ere baldosak solte daudela.</p> <p>Iluntzean kaleen argiztapena ez dela ona aipatzen da.</p> <p>Gune arriskutsuak daudela, farolak, hesiak, espaloitik Torrealderako eskailerak, plaza ondoko bidea...</p> <p>Kaleko mobiliarioaren inguruan ere ez dela mantentzen, hondatzen direnean berriak jartzen direla zuzenean.</p> <p>Kaleak garbitzeko erabiltzen diren makinak zarata gehiegi ateratzen duela eta oso goiz hasten dela lanean aipatu da.</p> <p>Baserri bideak ez daudela ondo.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Herriguneko etxe zaharrak eraberritzea - Kirol instalazioak eraberritzea - Lokal hutsak berrerabiltzea, behar ezberdinak betetzeko erabilera handiagoa ematea hainbat eraikini - San Roke kalea berritzea, instalazioak barne, Salvador osteko oinezko bidea konpontzea - Hilerri ingurua argiztatzea. Farola fotoboltaikoekin adibidez - Mantenimendurako planifikazioa egitea eta eguneroko mantentze lanak egitea (adib. skate pistako txapak ondo lotzea, Domingo Iturbe kaleko iturri bikoitzeko itokinak konpontzea...) - Udalari mantenimendu lana pilatzen zaionean herritarrei laguntza eskatzea, Auzolanak antolatzea - Kiroldegiko taberna ingurua zaintzea - Banku batzuk konpondu edo aldatzea - Jardinetan bankuak jartzea, Andra Mari Plazan esaterako - Larrabil bidean bankuak jartzea - Gudarien bidea oinezkoentzako ipintzea - Udaletxe eta kultur etxeko lokalak garbitzea - Asentzioko aparkalekutik barrura sartzeko bidea konpontzea - Intxorta, Eguarbitza, Askonabitza... gailurrak txukuntzeko lanak antolatzea - Efizientzia energetikoa hobetzea

HERRITARREN SAIOAN ESANDAKOAK:

EGOERA	PROPOSAMENAK
<ul style="list-style-type: none">• Adokinak ez dira egokiak.• Gudarien bidearen zati bat oinezkoena da.• Larrabilen bankuak badaude.• Hirigintzan oso kontuan hartu behar da ezer egiterakoan gero eskatuko duen mantenimendua (adibide ezegokia da Asentzioko bidea). Luzera begira pentsatu behar da.• Hirigintzarako eta mantenimendurako dirua mugatua da eta horregatik planifikazioa ezinbestekoa da.	<ul style="list-style-type: none">- Mantenimendua egitea- Hirigintzako edozein lanen diseinuan bertan gerora eskatuko duen mantenimendua kontuan hartzea. Gauzak politak eta funtzionalak egitea aldi berean- Fatxadak berritzeko plangintza bat egitea, gutxinaka berritzen joatea

12. ETXEBIZITZA BERRIAK EGITEA BULTZATU BEHARKO LUKE ELGETAKO UDALAK?




BATEZBESTEKO EMAITZA: 1,82

EGOERA	PROPOSAMENAK:
<p>Etxebizitza berriak egin beharra ez da ikusten orokorrean. Etxebizitza berriak oraindik salgai badaudela esan da. Horren parean etxebizitza hutsak betetzea izan beharko litzatekeela lehentasuna esan da kasu askotan, alde zaharra berreskuratzea. Herri txikiaren izaera mantentzea nahi dutela ere esan dute zenbaitek eta beti ere etxebizitza berriak eskariaren arabera egin beharko liratekeela, gazteak Elgetan bizitzen gelditzea helburu izanik.</p> <p>Herria neurri batean handitzearen alde egin du baten batek, bizilagun pixka bat gehiagorekin gehiago asentatuko litzatekeela argudiatuz.</p>	<ul style="list-style-type: none">- Udalak herrian etxebizitzen eskaria zein den ezagutzeko neurriak hartzea- Babes ofizialeko etxebizitza gehiago egitea- Eskariaren arabera, etxebizitza berriak egitea, merkatuko prezio estandarretatik beherako prezioekin

HERRITARREN SAIOAN ESANDAKOAK:

EGOERA	PROPOSAMENAK
• Etxe merkeagoek kalitate berdina izango dute?	- Etxebizitza berrien beharra eta jendearen ikuspuntua ezagutzea

13. ETXEBIZITZA HUTSAK MERKATURATZEKO NEURRIAK HARTU BEHARKO LITUZKE ELGETAKO UDALAK?



BATEZBESTEKO EMAITZA: **3,92**


EGOERA	PROPOSAMENAK:
<p>Gai honen inguruan hainbatek diote Udalak ez duela eskumenik eta Aldundiarekin eta Jaurlaritzarekin elkarlanean hartuko beharko lituzkeela neurriak.</p> <p>Etxeak hutsak zergatik dauden ere aztertu beharko litzatekeela esaten da: saldu nahi ez direlako edo ezin direlako saldu?</p> <p>Zenbaitek uste dute Udalak ez lukeela neurririk hartu behar, etxeak pribatuak diren heinean.</p> <p>Elgetako alde zaharraren egoera penagarria dela esan du baten batek, etxe huts asko dagoelako. Etxe zaharrak berritzeko askotan jabeek beraiek ez dutela dirurik esan da eta Udalak ezin diela horretan lagundu.</p> <p>Etxe merkatua Elgetan oso geldi dagoela esan da.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Udalak herrian dauden etxe hutsen datu-basea osatzea - Alokairu soziala bultzatzea beste erakunde publikoekin elkarlanean - Eskaintza erakargarriak martxan jartzea etxe jabeek alokatzeko - Zergak igotzea - Etxebizitza hutsak enkantean jartzea edo babes ofizialeko etxeen modura - Alokatzaile eta bezeroen artean zubi lanak egitea, webgunean eta Udaleko paneletan dauden eskaeren berri emanez - Gazteei laguntzak ematea alokatu ahal izateko

HERRITARREN SAIOAN ESANDAKOAK:

EGOERA	PROPOSAMENAK
<ul style="list-style-type: none">• Etxebizitza hutsen gaineko zergak igo dira. Batzuk ez daude ados, kasuistika ikusi beharko litzatekeela diote, zergatik daude etxeak hutsik? Beste batzuk diote alokairua bultzatzeko modu bat dela, nahiz eta salbuespenak ere jarri daitezkeen.• Gaia bi aldeetan “saldu” behar da: abantailak azpimarratu behar zaizkio alokatzeko etxea duenari eta baita alokatuko duenari ere.	<ul style="list-style-type: none">- Etxebidek ematen duen zerbitzuaren berri gehiago ematea herritarrei (astean behin pertsona bat dago horretarako Udalean lanean)

14. ELGETA HERRI EROSOA DA OINEZ MUGITZEKO?

Markatu zure balorazioa 1etik 5era (1 oso deserosoa eta 5 oso eroso)



BATEZBESTEKO EMAITZA: **4,10**


EGOERA	PROPOSAMENAK:
<p>Orokorrean herri barrua oinezkoentzat nahiko eroso dela dio jendeak eta ez hainbeste inguruko ibilbideak.</p> <p>San Roke kaleko adokina izan da kexa gehien jaso dituen herriko gunea.</p> <p>Herri erditik pasatzen den errepidea ere izan da askorentzat hizpide, arriskua sortzen duela-eta. Semaforoak kotxeei lehentasuna ematen diela esan da.</p> <p>Elurra egiten duenean sortzen diren arazoak ere aipatu dira, kotxeak aparkalekutik ateratzeko, kaleak labainkor egoten direlako, etab.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ez dauden kasuetan, zebrabide eta espaloiak jartzea - Semaforoak oinezkoei lehentasuna ematea - Trafikoak sortzen dituen arriskuak eragotzea: plaza inguruan, eskola atariraino kotxeak ez sartuz, Torrezar pareko zebrabidea, Salvador kaleko hesiak konponduz, etab - Kale gehiago oinezkoentzat bihurtzea - Elurrak arrisku eta arazoak ez sortzeko neurriak hartzea - Oinezkoen eta bizikleten ibilbide gehiago egitea (bidegorri babestuak Bergara – Asentziora-, Elorrio, Eibar, Arrasaterantz) eta daudenak konpontzea - Argiztapena hobetzea, batez ere industrialdean

HERRITARREN SAIOAN ESANDAKOAK:

EGOERA	PROPOSAMENAK
<ul style="list-style-type: none">• Askotan mantenua da arazoa.• Trafiko arazoak daude Berraondokuan, kanposantuaren atzetik Larrabidera bidean...• Elurrarena orain hobe kudeatzen da. Nolanahi ere jendearen mentalitate aldaketa ere antzematen da, ez gaude prest gure etxe ondoa ere garbitzeko...• Elurrarekin lehentasunak aurrez erabakita izan behar dira: herriari edo industrialdeari eman lehentasuna?	<ul style="list-style-type: none">- Semaforoek oinezkoei lehentasuna ematea- Kotxeen norantza bakarra osotasunean aztertzea eta beharra balego egokitzea- Elurra egiten duenean alternatibak pentsatzea eta planifikatzea: minibusa mugitzeko?- Sahiesbidea egitea eta herritik trafikoa kentzea- Elbarrituen ikuspegitik herria nola dagoen aztertzea eta horren arabera egokitzea- Haurren herria proiektua martxan jartzea (umeentzat erosoagoa izan dadin)

15. ZER IRITZI DUZU AUTOBUS ZERBITZU BERRIARI BURUZ?

ZERBITZU BERRIARI BURUZ?




BATEZBESTEKO EMAITZA: **3,30**

EGOERA	PROPOSAMENAK:
<p>Autobus zerbitzua azken urteetan asko hobetu dela esaten da. Puntuala dela, tratua ere ona, garbi egoten dela...</p> <p>Arrasaterako autobus zerbitzua da okerren baloratu dena, gainera ospitala han dagoela kontuan hartuta. Bizkaia aldera ere zerbitzua okerragoa dela esan da Gipuzkoa aldera baino. Hiriburuetarako lotura ere ez dela egokia jaso da.</p> <p>Jende dezente aipatu du ezin duela iritzirik eman autobus zerbitzuaren inguruan ez duelako erabiltzen. Horregatik diote hainbatek erabiltzaileen inguruko zenbakiak ez dutela laguntzen zerbitzu on bat mantentzen.</p> <p>Hori kontuan hartuta hainbat zerbitzu eskaripekoak bihurtu beharko lirатеkeela esan da.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Autobusak sarriago pasatzea, ordutegia zabalagoa izatea, batez ere asteburuetan - Autobus zerbitzua hobetzea Bizkaia aldera (Elorriotik beste hainbat lekuetara joan ahal izateko) - Arrasaterako autobus gehiago jartzea, bereziki ospitalerako zerbitzua - Hiriburuetarako autobus gehiago jartzea - Udararen kostara joateko autobusen bat jartzea - Gaueko autobus gehiago jartzea - Eibarrera goizean doan zerbitzuan jende gehiago sartzeko aukera ematea, guztiak bidai bakarrean sartu ahal izateko eta konexioa hobetzea - Gutxien erabiltzen diren kasuetan, zerbitzuak eskaripekoak bihurtzea

HERRITARREN SAIOAN ESANDAKOAK:

EGOERA	PROPOSAMENAK
<ul style="list-style-type: none">• Eskaripekoa astuna da. Ezin da diruarekin ordaindu. Ezin da internetez eskatu, soilik telefonoz (zenbakia aldatu zuten eta ez dute abixatu). Eskatzerakoan eskura izan behar dituzu zenbakiak (Lurraldebuskoa eta NANA)...• Autobus zerbitzuaren maiztasuna ez da erregularra, ez du ordutegi finko bat eta horrek ohitura sortzea zailtzen du.• Batzuk diote egoera ona dela gehiago jarriz gero kostua handia ekarriko lukeela.• Bergarako autobusak handiegiak dira eta orduro daude.• Jaietan gauetz autobus zerbitzua badago.	<ul style="list-style-type: none">- Eskaripekoa errazagoa izan dadin neurriak hartzeko eskatzea Foru Aldundiari- Autobus zerbitzua erregularragoa izatea ordutegiari dagokionez- Autobus gehiago izatea asteburuetan

16. ZER IRITZI DUZU ELGETAKO KIROL ZERBITZU ESKAINTZAREN INGURUAN?




BATEZBESTEKO EMAITZA: 3,61

EGOERA	PROPOSAMENAK:
<p>Kirol eskaintzarekin jendea orokorrean gustura dago, bereziki aurten kiroldegitik egin den eskaintzarekin. Nolanahi ere zenbait instalakuntza zahartuta gelditu direla esaten da, hotza egiten duela, etab. Ordulegiarekin ere badago kexaren bat, guztiek ezin baitute parte hartu horregatik (adib. arratsaldean lan egiten dutenak). Kirol ikastaroetako begiraleen gaineko iritzia oso ona da. Ez dago igerilekurik. Elgetako 70 bazkide inguru daude Bergarako kiroldegian. Helduentzat eskaintza gehiago dagoela esaten da haurrentzat baino.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Igerileku bat jartzea - Kirol instalakuntzak hobetzea, berritzea - Kirola egiteko makina eta material gehiago erostea - Ikastaroen ordulegiak jendearen beharretara egokitzea - Futbitoko kantxa estaltzea eta argiak jartzea - Umeentzat pelota bultzatu

HERRITARREN SAIOAN ESANDAKOAK:

EGOERA	PROPOSAMENAK
<ul style="list-style-type: none">• Igerilekua ez da bideragarria, egiteak eta mantentzeak kostu ikaragarria dauka.• Ez dago kirol txartel mankomunatua. Gaur egun Bergarakoek baino gehiago ordaintzen dute Elgetakoek.• Eibarren bertakoek bezala ordaintzen dute Elgetakoek, baina joera Bergarara joatea da.	<ul style="list-style-type: none">- Dauden instalakuntzak ondo jartzea, mantenimendua hobetzea.- Kiroldegietako bazkide egitean kenkaria aplikatzea?

17. ZER IRITZI DUZU ELGETAKO KULTUR ZERBITZU ESKAINTZAREN INGURUAN?




BATEZBESTEKO EMAITZA: 3,55

EGOERA	PROPOSAMENAK:
<p>Herriko kultur eskaintza oro har ondo ikusten da, zabala dela diote hainbatek, herrian duen tamaina aintzat hartuta.</p> <p>Dena den dauden lokal eta baliabideekin ekintza gehiago antolatu daitezkeela ere esaten da, batez ere Antzokian.</p> <p>Espaloia Antzokia gaur egun lehiaketa publiko bidez esleituta dago. Bertako kudeaketa eta taberna zerbitzuaren inguruko hainbat kexa jaso dira, "hiltzen" ari dela esaten da. Bertatik antolatzen diren ekintzak ez direla erakargarriak diote hainbatek, giroa ez dela ona eta ekintzak gaztelaniazkoak direla, gainera askotan egongo diren gauzen inguruko informaziorik ez dela jartzen herrian.</p> <p>Herrian umeei begira helduentzat baino gauza gehiago antolatzen direla dio jendeak eta kasu horietan begirale edo irakasle izateko ez dela gaitasun teknikoa izatea ezinbestekoa.</p> <p>Liburutegiaren zerbitzua hobetu egin dela esaten da eta ludoteka izatea oso positiboa dela Elgeta bezalako herri batentzat.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Agenda bateratua lortzea, eragile desberdinen elkarlanean oinarrituta - Antzokirako proiektu herriak egitea, Udala eragile-bultzatzaile izanik- Rock kontzertu gehiago antolatzea - Antzerki eta dantza tailer gehiago antolatzea - Pianoa eta gitarraz gain, instrumentu gehiago jotzeko tailerrak antolatzea - Udan kaleko gau zinea jartzea - Nagusientzat ikastaro gehiago antolatzea: hitzaldiak, komentatutako filmak (asteburuetan)... - Ludoteka, gaztelekua eta zaintza zerbitzuetan begirale edo irakasle izateko gaitasun teknikoa nahitaezkoa izatea (titulua eskatzea) - Ludoteka zerbitzua merkatzea - Gaztelekuaren ordutegia zabaltzea, zaintza eskaintzea ikasturtean zehar 8:00etatik 9:00etara - Sormena sustatzeko ekintzak antolatzea: arte tailerra (dagoeneko antolatutakoa), musika, literatura, zinea, argazkia... - Ingeleseko talde batzuk sortzea, ingelesez mintzatzeko eta ingelesez ikasteko

HERRITARREN SAIOAN ESANDAKOAK:

EGOERA	PROPOSAMENAK
<ul style="list-style-type: none">• Azken urteetan Elgetak maila altua izan du kultura aldetik.• Proposatzen diren hainbat gauza “idilikoegiak” dira herriak duen tamaina kontuan hartuta.• Ze kultura eredu nahi dugu? galderari erantzun behar zaio: kanpokoak erakartzea bilatzen dituen espektakuluena edo bertako sormena lantzen duena?• Antzokia jende asko erakartzeko pentsatuta zegoen. Lehen funtzionatzen zuen lan boluntarioa egiten zelako.• Orain da momentua Antzokiaren inguruko hausnarketa egiteko, oinarrira joateko eta lanerako prest dagoen jendea identifikatu eta prozesu zabal bat egiteko. Gai honek kontsentsu zabala eskatzen du.• Antzokiak publizitatzeko zituen moduak aldatu ditu baina herrian kartelak jartzen dira.• Trikitixa eta pandero klaseak badaude.	<ul style="list-style-type: none">- Elgetako kultura eredu adostea.- Kultur programa eragileek lantzea, koordinatuta.- Antzokia kudeatzeko talde eragilea sortzea, kontzientziatua eta ikuspegi anitzak bilduko dituen.- Antzokiko bi jardunak banatzea? Sukaldea jabetzea alde batetik eta kultur eskaintza bestetik?- “Bono kulturala” jartzea.

18. ZER IRITZI DUZU ELGETAKO OSASUN ZERBITZUEN INGURUAN? OSASUN ZERBITZUEN INGURUAN?




BATEZBESTEKO EMAITZA: **2,81**

EGOERA	PROPOSAMENAK:
<p>Elgetan dagoen haur kopurua kontuan hartuta pediatria soilik asteen behin, umeen azterketa egiteko egotea oso gutxi dela esanda.</p> <p>Mediku bakarra dago herrian eta horrek medikua aukeratzeko eskubidea ez edukitzea dakar.</p> <p>Medikuaren inguruko hainbat kexa jaso dira: denbora asko itxaron behar izaten dela, asko luzatzen dela txandetan, akats larriak egin izan dituela mediku espezialistetara lehenago ez bidaltzeagatik, enpatia falta duela...</p> <p>Beste zenbaitek aldiz medikuarekin gustura daudela esan dute.</p> <p>Mediku espezialistetara Arrasatera joan behar da eta bertara joateko autobus zerbitzua eskasa da.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Pediatria egunero izatea. - Arrasatera mediku espezialistetara joateko autobus zerbitzua hobetzea. - Hitzordua eskatzeko modua hobetzea. - Kontsulta lekua egokitzea: lekua handitzea, harrera txiki bat jartzea, tenperatura aldetik hobetzea, barruan esaten dena kanpoan ez entzuteko neurriak hartzea.

HERRITARREN SAIOAN ESANDAKOAK:

EGOERA	PROPOSAMENAK
•	<ul style="list-style-type: none">- Kontsulta lekua egokitzea, insonorizazioari lehentasuna ematea (musika jarriz barrukoa ez entzuteko?)- Pediatra egun gehiagotan egoteko Udalak eskaera egitea

19. UDALAK EUSKARA BULTZATZEKO IKASTAROAK LAGUNDU BEHARKO LITUZKE?



BATEZBESTEKO EMAITZA: 4,17

EGOERA

Orokorrean jendeak ondo ikusten du Udalak euskara bultzatzeko ikastaroak antolatzea, euskara sustatzeko bide bezala ikusten delako. Esan da askotan ikastaroak antolatzeko eskaera falta dela eta gainera ikastaro horietan izena ematen dutenek konpromiso bat hartu beharko luketela jarraitzeko, gainerakoan bertan behera gelditu izan direlako, jarraitzen dutenen desmotibaziorako.

Nolanahi ere iritzi desberdinak daude euskara ikastaroen kostua nork eta zein neurritan asumitu beharko lukeen esaterakoan. Badago jendea dioena Udalak ez lukeela kostu osoa bere gain hartu behar eta ez litzatekeela edozein kosturen truke egin behar.

Euskarari dagokionez, herritar askok aipatu dute erabileraren jaitsiera, batez ere ume eta gazteen artean. Batzuk kanpotik etorritako jendearen ondorioz izan dela aipatzen dute eta beste batzuk aldiz ez dute hainbeste horrekin lotzen.

Horren haritik oso ondo ikusten da "Elgeta Berbetan" ekimena, jende helduaren artean ere euskararen erabilera bultzatzea oso garrantzitsutzat jotzen baita gero umeek ere erreferente hori izateko. Bestalde, Udalean hainbat kexa jaso omen dira Udalaren informazioa soilik euskaraz zabaldu dela-eta. Udala informazio idatzia gaztelaniaz ere jaso nahiko lukeenen zerrenda osatzen hasi da.


PROPOSAMENAK:

- Euskara plan bat egitea (Udalean eta eskolan), Elgetan euskararen erabilera handitzeko
- Euskara ikastaroak diruz laguntzeko sistema hobetzea
- Gaztelaniazko ikastaroak ere jartzea

HERRITARREN SAIOAN ESANDAKOAK:

EGOERA	PROPOSAMENAK
<ul style="list-style-type: none">• Guztiek diote erabilera jaitsi dela.• Datuek ere hala diote, Elgetan beste herriekin alderatuta erabilera askoz gehiago jaitsi da.• Zergatian iritzi desberdinak daude: eskaintza gehiago dago gaztelaniaz, erakargarriagoa da gaztelania, txip aldaketa behar da...• Askotan errua umeei botatzen zaie baina helduen kontua da normalean.• Arazoa etxetik dator. 90. Hamarkadan ere kanpotik etorri zen jendea baina horien umeak guztiz euskaldunak dira, baina oraingoek gaztelaniarako joera handiagoa daukate.• Euskararen kalitatea jaitsi egin da.• Gaztelaniazko ikastaroek kanpotik etorritakoentzat ez badira ez dute zentzurik.	<ul style="list-style-type: none">- Euskara normalizatzeko ekintzak egitea.

20. ZER IRUDITZEN ZAIZKIZU UDALAK TURISMOA BULTZATZEKO EGITEN DITUEN EKINTZAK?



BATEZBESTEKO EMAITZA: **3,67**

EGOERA	PROPOSAMENAK:
<p>Hainbat jendek dio ez dituela ezagutzen Elgetan turismo aldetik egiten diren ekintzak</p> <p>Euskal Herri mailan toki estrategiko batean dagoela esaten da, Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba erdian eta horrek turismoa erakarri dezakeela.</p> <p>Herrian badago hotela eta baita bi nekazaturismo ere. Antzokia ere izan da azken urteetan turismorako deia.</p> <p>Turistak egon arren herriko zerbitzuak (tabernak, dendak...) igande eta abuztuan itxita egoten dira.</p> <p>Gaur egun egiten direnak ondo ikusten dira orokorrean (Intxortako bisita gidatuak, eszenifikazioak...) baina hobekuntza proposamenak ere egin dira:</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Turismo jasangarria bultzatzea - Turismo kulturala bultzatzea - Herriko hotelera eta nekazaturismoetara datozen turistei begira ekintzak egitea - Herriko gida-mapa eguneratu bat egitea - Elgetako ibilbideen informazioa eguneratzea - Antzokia biziberritzea - Intxortako museoarekin lotuta, lehengo lantegien edo baserriko tresnekin museo "etnografiko" bat sortzea - Bolatokia zaintzea eta sustatzea - Turismo aldetik ekintzak elgetarrei begira ere egitea (askok ez baitakite beraien herriko historia)

HERRITARREN SAIOAN ESANDAKOAK:

EGOERA	PROPOSAMENAK
<ul style="list-style-type: none">• Asentzioko etxea Udalarena da eta gaur egun oso egoera txarrean dago.• Asentzion, gune turistikoa izanda, hondakinak gainezka egoten dira, gune bakarra baita edukiontzia zabalik duena.• Panfletoak falta dira herriari buruzkoak hizkuntza desberdinetan. Herrikoentzat ere interesgarriak lirateke, herritarrek beraiek leku horiek ezagutzeko eta turistak bertara bideratzeko.• Herrian ermita, errota... asko dago.• Turistentzat zerbitzuak falta dira: jatetxeak...• Museora turistak ezin dira Antzokia itxita baldin badago.• Zenbaitetik zalantzan jarri dute Elgeta bezalako herri batek lehentasun modura turismoa bultzatzea izan beharko lukeen. Lehenago legokeela herri bizia izatea hori bultzatzea.	<ul style="list-style-type: none">- Asentzioko etxea egokitzea turismorako, alberge modura...- Herriari buruzko mapa-panfletoak egitea, herritarrei eta turistei begira- Ibilbideak prestatzea ermiten inguruan, erroten inguruan..- Ditugun baliabideak txukun mantentzea- Antzokia itxita egon arren turistak Intxortako museora joateko bideak jartzea- Gertuko turismoa bultzatzea- Dauden baliabideei ahalik eta etekinik onena ateratzea

21. BESTERIK

EGOERA	PROPOSAMENAK:
<p>Enpresak sustatzea oso garrantzitsutzat jotzen da, horrek Elgetan lanpostuak sortu, Udalaren diru sarreak handitu eta bertako negozioei jaten ematen dielakol.</p> <p>Herri anitza dela esaten da eta hori balioa dela.</p> <p>Herritarren inplikazioa eta parte-hartzearen beharra aipatzen da, konpromisoa herrigintzan aritzeko eta herria aurrera ateratzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none">- Enpresa berriak Elgetara ekartzea- Dauden enpresak Elgetan finkatzea eta Udalak babestea- Langabetuen poltsa egitea, poligonoko enpresetan lana egin ahal izateko Udalak negoziatzea- Gertuko aktibitateak bultzatzea: komertzioak, tabernak, inguruko baserritarren produktuei bideak ireki...- Herriari izena emango dioten eta herritarrak kalera irtetera bultzatu dituen ekitaldiak antolatzea- Etxeen fatxadetan papelik eta panfletorik ez jartzeko neurriak hartzea- Bizikletak, motorrak, kotxeak... garbitzeko leku bat jartzea- Txakurren kaken arazoa konpontzeko zerbait (isunak, zakarrontziak...)

HERRITARREN SAIOAN ESANDAKOAK:

EGOERA	PROPOSAMENAK
<ul style="list-style-type: none">• Bizikletak garbitzeko gunea badago.• Elgetatik enpresak joan egin dira, kamioientzat deserosoa da, elurra egiten du maiz...• Pagatzako industrialdearen inguruko galdera falta zen galdetegian. Herria industrialda da eta gai hori falta zen.• Lokal hutsak badaude eta lortu beharko litzateke Elgeta leku erakargarria bihurtzea enpresa berriak jartzeko, aktibitate jakin batzuekin lotuta.	<ul style="list-style-type: none">- Autoenplegurako lokal txikiak prestatzea eta erraztasunak ematea, Udalak hutsak dituen lokaletan.- Udalak hartuemanana izatea industrialdearekin, zubi lana egitea beraien beharrak ezagutzeko (zerbitzu aldetik...) eta herrian ematen den eskaintzarekin lotzea- Industriarako harrera protokoloa egitea- Berraondoko industrialdea Pagatzara pasatzea (bideragarria?)